

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Zizurkil*



Aurkibidea

# Udalerria: Zizurkil

## Sarrera



Tolosaldeko herri honek Adunarekin egiten du muga ekialdetik, Amasa-Villabonarekin hego-ekialdetik, Asteasurekin mendebaldetik; iparraldetik, Andoain, Zubieta, Usurbil eta Aiarekin; eta, hegoaldeetik berriz, Villabona eta Anoetarekin. Herritar gehienak Elbarrena izeneko industria auzoan bizi dira. Garai batean nekazaritza eta abeltzaintza ziren Zizurkileko jarduera nagusiak. Gaur egun, oraindik baserri batzuek jarraitzen dute horretan baina egungo herriko jarduera nagusiak metalurgia- eta paperlantegiak eta edaritegiak dira. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 2.797
- **Euskaldunak:** %63,35

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **18**
- Zintak: **23**
- Pasarteak: **163**
- Transkribatutakoak: **5**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **162**

## Proiektuak

- 101L - DSS2016 Donostialdea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskararen historia soziala Elgoibarren
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

## Hizlariak

### **Juan Jose Araolaza Lahidalga (1943-2024)**



Juan Jose Araolaza Zizurkilen jaio zen 1943an. Aita tolosarra eta ama azpeitiarra zituen; Zizurkiletik Elgoibarrera bizitzera joan zen 11 urte zituela, aitaren lana zela eta. Zaragozan ikasketak egin zituen eta Elgoibarrera bueltatu zenean, Ongarri Kultur Elkarteko kide bilakatu zen. Felix Etxeberria *Parapan* eta Luis Bilbaoren bitartez, Elgoibarko Izarrako lehendakari kargua hartu zuen. Elgoibarko Ikastolaren zuzendaria izan zen, ikastola legalizatu aurretik eta osteko urteetan. Elgoibarko Izarrak, ikastolen lokalei buruz, irakasleez, diru-laguntzez, eraikin berriaren beharraz, herriaren inplikazioaz, eta abar hitz egin zuen, Elgoibarko Euskararen Historia Soziala proiekturako egindako elkarrizketan.

### **Pedro Arrastoa Malkorra (1927)**



Zizurkilgo Olatza baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Oresakoa. Zortzi senidetan zaharrena. Hamasei urte zituela hil zitzaion aita, eta berak hartu behar izan zuen etxeko martxa. Geroztik beti egin izan du lan baserrian. Hala ere, berrogeita hamar urterekin Adunako Hidronor lantegian hasi zen lanean. Handik hartu zuen erretiroa.

### **Joxe Manuel Atxaga Ernardorena (1932)**



Zizurkil gorako udaletxean jaio zen, aitona praktikantea baitzuen; ama, Ixabel, han jaio zen. Garaiko herrikide asko ez bezala, txiki-txikitatik hasi zen eskolan ikasten: 10 urtera arte herriko eskolara joan zen, eta Juan Imazekin ikasi zuen gero. 16 urte arteko ikasketak, Andoaingo La Sallen egin zituen. Orduantxe hasi zen Sacen-en lanean; eta, garai hartan, lau urtez Tolosako Almi Akademian aritu zen ikasten Enrique Biguriarekin. 21 urterekin, Arkauteko paper-fabrikari hasi zen lanean, eta 20 urte inguru egin zituen bertan. Ondoren, Arkautetik irten, eta bere kontura hasi zen lanean aseguruarekin. 38 urterekin, Arribeko Margot Iriarte Oterminekin ezkondu zen, eta Tolosan jarri ziren bizitzen. Orduantxe ezagutu zituen Tolosako mugimendu euskaltzalea; eta, oraindik ere, horren alde lanean dihardu, euskal kulturaren inguruan. Mendi-ibilaldietan, euskarazko kantu zaharrak abestuz eta ikurrinak jarriz ekin zion lanari; eta Laskorain ikastolaren sorreran ere izan zen, besteak beste. 1963an kartzelan sartu zuten legez kanpoko propaganda banatzeagatik. Abertzalea eta euskalduna dela sentitzen du denaren eta denen gainera, eta argi dauka horri eusteko bidea jorratu behar dela.

### **Pedro Bengoetxea Tejeria (1925-2013)**



Zizurkilgo San Millan baserrian jaioa. Bederatzi senide ziren etxean, hiru neska eta sei mutil. Gazterik hasi zen fabrikan lanean, hamasei urterekin, Talleres Adunako fundizioan. Ondoren Irunen ibili zen soldadu. Itzuleran, lanari ekin zion berriz, erretiroa hartu zuen arte.

### **Jose txo Goenaga Mendizabal (1943)**



Zizurkilgo Makula baserrian jaioa. Aita Adunarra zuen eta ama Tolosako Urkizukoa. Hamabi senideko familia zen berea. Hamalau urterekin hasi behar izan zuen fabrikan. Afizioak, ordea, ez zituen falta. Zizurkilen bazen baserri batean jasotzeko moduko harria, eta igande arratsaldetan bertara hurbiltzen zen lagun taldearekin. Trikitia ere gustuko zuen. Aitak opari gisa eskusoinua jaso zuen noizbait eta senide guztiek jotzen zuten, hobetoxeago edo okerxeago.

### **Manoli Goenaga Zubeldia (1929-2018)**



Zizurkilgo Garmendi baserrian jaioa. Aita jaiotetxekoa zuen, eta ama, berriz, Zizurkilgo Itzumitz baserrikoa. Sei senidetan bosgarrena. Ahizpa zaharragoa neskame joan zen, eta berak etxeko martxa eramaten lagundu zion amari etxean bizi izan zen artean. Gerora, Zizurkilgo Ugartera ezkondu zen.

### **Euxebi Iraola Sansebastian (1924)**



Bost senidetan zaharrena, Zizurkilgo Loidi baserrian jaioa da Euxebi. Ama amezketarra zuen, eta aita bere jaiotetxe berekoa. Aitak fabrikan egiten zuen lan, eta bera ere hala hasi zen, ezkondu aurretik, Talleres Adunan. Burdin artean egiten zuen lan, izan tornuan, izan burdin zatiak kargatzen... gizon artean, eta gizonen bezala. Irabazi, ordea, gizonen baino gutxiago egiten zuen, noski. Baserrian ere beti aritu izan da lanean, eta esku latzak izan arren, josteko eta eskulanetarako afizioa eta dohaia gaztetatik izan du.

### **Antonio Kortajarena Kortajarena (1928)**



Zizurkilgo Garetza baserrian jaioa. Aita, bertakoa zuen, eta ama, berriz, Asteasuko Ondartza baserrikoa. Bederatzi senidetan hirugarrena, eta anaietan zaharrena. Hamalau urte betetzerako pinu-koskorak biltzen hasi zen lanean. Berehala, herriko basozainak lanerako hartu zuen, beste mutil gazte batzuekin batera, pinu landarea sartzeko inguruko mendietan, eta hala ibili zen hamazazpi urte bete arte. Gerra garaian erreketek eta falangistak haien etxean egon ziren, bista onak zituela eta. Haiak joan eta berehala hil zitzairen aita, eta etxera itzuli zen lanera. Anaia zuen apustuzalea, eta ahari probatan zein idi probatan ere ibilia da.

### **Maria Kortajarena Kortajarena (1924)**



Zazpi senidetan zaharrena, Maria Zizurkilen jaio zen, Garetza baserrian. Aita, bertakoa zuen, eta ama, berriz, Asteasuko Ondartza baserrikoa. Gerra garaian jaiotetxean erreketek eta falangistak izan zituzten, lau hilabetean. Hilabete haietan senideek Abeletxe baserrian hartu zuten babes, baina, etxeko alaba zaharrena izanik, Mariak amari lagundu zion etxea gobernatzen. Hogeita sei urterekin ezkondu zen eta bost urtean bost haur izan zituen. Gerora senarra hil zitzaion eta berriz ez ezkontzea erabaki zuen. Etxera ogia berak ekarri behar eta, garbiketa lanetan zein tabernan lanean aritu zen, urte askoan, erretiroa hartu arte.

### **Juan Labaka Goenaga (1929)**



Asteasuko Isastieta Etxeberri baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama ere asteasuarra zen. Hiru urte zituela, bere familia Zizurkilera joan zen bizitzera, Ugarte baserrira. Geroztik beti egin izan du lan baserrian.



### **Marta Mendizabal Azkarate (1932)**

Zizurkilen jaio eta Donostian bizi izan da. Aita gazte hil ze eta amak udaletxean lan egiten zuen atezain. Arreba nagusiago bat zuen. Hamabost urte merkatuan arrautza saltzen lan egin zuen. Hiru seme-alaba izan zituen.

### **Jesusa Mendizabal Bengoetxea (1921)**



Zizurkilgo Aunibar baserrian jaio zen. Zortzi senidetan seigarrena, gogor lan egin behar izan zuen baserrian gurasoei laguntzen, baita senideak zaintzen ere. Eskolara joateko ia betarik gabe, Donostiara joan zen neskame 10 urte zituela. Oso polita omen zen gaztetan eta hamaika korteju jaso zituen arren, Villabonako Ignacio Garmendiarekin ezkondu eta Kale Nagusian jarri zen bizitzen. Egunkaria irakurtzea eta ile-apaindegira joatea dira Jesusaren zaletasunik handienak.

### **Maritxu Mendizabal Mendizabal (1930)**

Zizurkilgo plazan jaioa, Pantxikene etxean. Gurasoak Zizurkilgoak zituen. Pantxikene herriko gune garrantzitsua zen sasoi batean: taberna, jatetxea, okindegia, denda eta estankoa, denetik zuten han. Aitak ogia egiten zuen, eta ama sukaldean egoten zen. Behiak ere bazituzten; inguruko baserrietako esneak biltzen zituzten, eta Donostiara eramane egunero, saltzeko. Maritxu herriko eskolan ibili zen 14 urtera arte. Esnea partitzen eta tabernan zerbitzen hasi zen gaztetxotatik. Zaldi-karroan joaten zen Villabonako geltokira eta gero trenez Donostiara. Bost senide ziren, hiru neska eta bi mutil. Villabonara ezkondu zen, Oriamendiko etxeetara: Zizurkilgoa zuen senarra, baina SACEMen zebilen lanean. Alaba bat izan zuten.

### **Lesmes Mujika Mitxelena (1931)**



Oiartzungo Lizarre baserrian jaioa. Bai aita eta bai ama oiartzuarrak zituen. Zazpi senidetan bosgarrena. Anaia Zizurkilgo emakume batekin ezkondu zen, eta handik ezagutu zuen berak bere senarra izango zena. Hogeita bi urterekin ezkondu zen Zizurkilera. Bertan, herriko emakume gazteentzat sukaldaritza ikastaroak antolatzen ibili izan zen urteetan. Bestalde, astero behin edo birritan Donostiako Bretxara joan ohi zen etxeko generoa saltzera.

### **Teodoro Mujika Salaberria (1924)**



Zizurkilgo Arrieta baserrian jaioa, bi urte zituenean Iriarte etxera joan ziren bizitzera. Herriko eskolan ibili zen, gerra hasi zen arte. Hainbat lanetan ibili da: harrobian, igeltsero, bizargin moduan... Monagilo eta sakristau lanetan ere ibilia, 23 urtean. Andoingo emakume batekin ezkondu, eta lau seme-alaba izan zituzten. Idazlea da Teodoro, eta hainbat liburu idatzi ditu, besteak beste Otaño bertsolariari buruzkoa. Bertsoak jartzen ere trebea da. 14 urterekin hasi zen bertsoetan Villabonan bizi dira.

### Josefina Tapia Urkia (1927-2019)



Zizurkilgo Errotamendi baserrian jaioa. Jaiotetxe berekoa zuen aita, eta Zizurkilgo Zalduzar baserrikoa ama. Aitak zioen Errotamendi baserriaren jatorrizko izena "Errete Barrendi" zela, baina esanean esanean herritarrek aldatu ziotela izena. Josefina, hamabi senidetan laugarrena, hogeita bat urterekin ezkondu zen Arripitxi baserrira.

### Joxe Mari Tapia Garmendia (1940)



Zizurkilen jaio zen, kale-baserri batean. Zazpi senidetan zaharrena zen eta bi urterekin aitaren etxera bidali zuten han haztekotan. Amonak eta hiru osaba-izebak hazi zuten. Eskolara bidali zuten eta 16 urterekin, baserriko lanetan aritzeaz gain, etxetik kanpo ere lanean hasi behar izan zuen. Soldadutza egitera Afrikara joatea tokatu zitzaion eta han zela, osabak kanpoko bati saldu zizkion baserria eta terreno sail handiak. Horrela, itzuli zenean, ezkondu eta Andoainera joan ziren bizitzera andrea eta biak. Han bizi izan dira geroztik.

### Joxe Mari Tolosa Arizeta (1930)



Zizurkilgo Lardamuño baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Ugartekoa. Gaztetan herriko dantza taldean aritua, inguruko herrietara ere joaten ziren dantzara. Korrikalari ere ibilia, Zizurkilgo herriko festetako apustua behin baino gehiagotan irabazia du, eta baita inguruko herrietako zenbait ere.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Baserria

#### 1.1. Pinu koskorrak biltzen

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Kortajarena, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ZIZ-006/003
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:02:23. **Bukatu**: 00:04:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Mutikotan pinuen koskorrak biltzera joaten ziren, pinuetan gora igota, koskorren barruko haziak lortzeko. Zakua bete eta kiloko hainbeste ordaintzen zieten gero Andoainen zegoen "mutteian"

(mintegian). Koskorrak biltzeko mailua erabiltzen zuten. Herriko gazteak ibiltzen ziren lan horretan.

### Transkripzioa

- Pixkat, koskortu ezker, mutil koskorra pinu koskorrak biltzea aurreneko ateara izan gendun guk. Piñuba, piñu... koskorrak izaten zittuen haik.
- Haziya ateatzeko koskorrak bildu bihar izaten zian. Ta gu, mutil koskorrak, oain baiño biguiñaguak izaten giñan ordun ta.
- Ta nola biltzen zenituen piñu koskor haiek?
- Gora iyota. Mailluba hartu ta gora iyo ta bota. Mailluba libratzen giñun, jo ta behera bota, behian zakuba bete ta kiloko hainbestian. Mutteiya, Andoaiñen zan ordun mutteiya, hara. Biltzen zittuen haziya kentzeko koskorrai.
- Ta zenbaten saltzen zan kilua?
- Gu ez giñan enteatzen.
- Dirua jaso ta etxen entregatu?
- Biharko.
- Ta piñu koskor haiek biltzeko maillua zer zan maillu normal bat?
- Bai, maillu ttiki bat nahikua izaten zan.
- Makillakin ez zan nahikua? maillua ber zun?
- Makillakin zailla. Maillubakin jota seittun libratzen zan baiño.
- Ta ondo gora iyoko ziñaten ordun, koskor guztik biltzeko piñu baten.
- Bueno! Katuba bezela han behetik gora ordun. Eskolatik atera ta geo, bialdu ta seittun, hamalau urte ezkeo, zeoze...
- Ta ze ibiltzen ziñaten lagunak o senidek o...?
- Bai, herritik... herrikuak izaten giñan, kuadrilla. Hasi giñanian zortzi lagun eo holakon bat, sei-zortzi lagun eo hasi giñan ta geo...

## 1.2. Bizi osoa baserriko lanetan

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Kortajarena, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ZIZ-006/007
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:12:08. **Bukatu**: 00:13:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Baserría » Baserriko lanak
  - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Hamazazpi urte ezker beti etxean egin du lana. Ganadu asko zeukaten. Arreba zaharrena eta amarekin bakarrik geratu zen. Beste anai-arrebak ahal zuten tokira joan ziren. Antonio gustura gelditu zen etxean.

### Transkripzioa

- Eta esan dezu hamazazpi urte bitartian aitu ziñala lan hortan, ezta?
- Bai.
- Ta handik aurrea etxian in zendun beti lana?
- Bai.
- Etxen ordun ze martxa ematen zendun, ze lan in ber izaten zendun?
- Etxen ba ganau asko izaten zan ta, irik eta danak etxian izaten zian ta. Arreba zaharrena laguntzen-eo etxian ibiltzen zan. Biyok amakin. Gainantzekok aide! Neska koskorretan neskame batea ta bestea ta... ahal zuen tokia.

- Ordun zuk aukera izan bazendun nahiyoko zendun kanpoa jun morroi o gustoa geatu ziñan etxen?
- Ordun morroi're gogorra izaten zan. Etxia beti gustokua izaten da, etxian.

## 2. Familia eta harremanak

### 2.1. Pinuak landatzen

- **Hizlaria(k):** Kortajarena Kortajarena, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ZIZ-006/004
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Pinuen koskorrak biltzen ari zirela, behin guarda etorri zitzairen, eta lanerako gazteak behar zituela esan zien. Mutteian (mintegian) lan egin zuten orduan. Lan hura nolakoa zen azaltzen du. Lanera oinez joaten ziren. Astoa kargatzeko, saskiak erabiltzen zituzten. Ehuneko pinu sortak landatzen zituzten.

### Transkripzioa

- Hoixe aurrena ta, geo, guarda etorri zan. Gazte batzuk [... hartuko littukela] ta. Julian, Villabonakua zan hoi, hau Villabonan muitzen zan; berez zan hoi... Ataungua zan guarda hoi. Ta harek gazte batzuk bildu zittun, muitein lana itteko bihar zittula ta muitein aitzen giñan geo. Muitein pasa giñun... piñu landaria, piñu haziya in ta labrantzan bezela.
- Muitei zer zan baserri bat?
- Muiteiya? Ez. Hua... piñu haziya itten zan. Geo, landariak hazi zizkenian, haik atea ta mendira, jainkuak dakin tokitara, batea ta bestea, haik hartu ta piñu zulatzen ta. Zulatu ta sartu.
- Zeiñek ematen zun negoziyo hua?
- Hor bat... katapaza izaten zan bat eta, asto bat'e bai ta... Astua... Astota kargatu ta, piñu hoi, piñu landaria mendia eman ta han sartu. Amasamenditia, hemendik... goizian atea ta bi ordun ez giñan aillatzen hara gu.
- Oiñez juten ziñaten harea?
- Onbre! ordun bizikleta izan ezkerro, bai earki. Ba al zan ordun bizikletik'e? bueno.
- Ta astua nola kargatzen zenduen, saskikin o zeoze [...] zun?
- Bai, xextuakin jarrita, xextuakin o kakuakin eo...
- Ta zenbat landare ematen zenituen aldiko gutxi gorabehera?
- Denbora?
- Biaje bakoitzeko zenbat piñu landare sartzen zenituen?
- Ez dakit nik zenbat, ziento batzuk izango zian. Zientoka iten giñun, ziento sortak, ziento... ziento batekuak. Ta auskalo! pilla ondo itten bazun astuak.

### 2.2. Pinuak nola landatzen zituzten

- **Hizlaria(k):** Kortajarena Kortajarena, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** ZIZ-006/005
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Pinuak landatzeko, aitzurrarekin zuloak egiten zituzten, eta ondoren landareak sartu. Orduan, pinua ongi ordaintzen zuten estimatua zelako. Hamazazpi urte bitartean ibili zen horretan, aita hil zitzaion arte. Jornala egunean 11 pezetakoa izaten zen. Oso lan gogorra zen, asko ibili behar izaten zutelako.

### Transkripzioa

- Ta nola landatzen zenituen gero? zulua iteko erramientan bat ibiliko zenduen.
- Atxurrakin zulua, hola itten genun. Aurrena zuluk itten giñun. Mendiya dana zulatu aurrena, ta gero landaria sartu. Ordun Amasamendi aldi hoik danak guk sartu giñun. Ordun piñuba oain baiño gehiyo estimatzen zan. Ondo pagatzen zuen ordun piñuba. Baiño kanalak eta baida hor Andoain... kanala... hor Amasamenditikan ura hartu ta kanala, kilometro askuan. Kanal haitan... haik ez dakit noaiño jungo diran /jungoiran/ Napar aldea. Han juten giñan kanal ixkiñan. Majiña bat kilometro pasatzen giñun. Hola hamazapi urte bitartian. Gero, gero aitta hil zan ta ordun geatu nitzan etxian.
- Ordu arte lo ta etxian iten zenduen? Egunero etxea bueltatzen ziñaten?
- Bai.
- Ta jornala zenbatekua izaten zan?
- Hamaika pezta ta, hola.
- Egunekua?
- Fabrikan gutxigo irabazten zala-ta, mendin pixkat...
- Baiño lana gogorragua izango zan fabrikakua baiño.
- Bueno! Gogorra, oso gorra. Ordun ibiltzen ez giñan nekatzen ta... Biaje haundik in bihar batea ta bestea. Ibili, asko ibiltzen giñan, egun guzin, egun guzin ibilli.
- Ta gogorrena ze izaten zan, gerrik kastigatzia zulok iten eta landare sartzen? Nola izaten zan? ze izaten zan gogorrena?
- Gogorrena? Dana gogorra orduan.

## 3. Aisia

### 3.1. Idiak apustueta erabiltzen zituzten

- **Hizlaria(k):** Kortajarena Kortajarena, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ZIZ-006/009
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Herri-kirolak  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Apusturik bazen, idiei babak ematen zizkien jateko. Lehen zeuden bide zaharretan egiten zituzten apustuak. Apustuetaarako eta lanerako idi berberak erabiltzen zituzten.

### **Transkripzioa**

- Ze jan, ze ematen zenien jaten?
- Etxian zana, artua ta. Pentsuba ordun garesti izaten zan ta etxian iten zan artoa pixkat eta, gaiñantzian belarra, belarrakin mantzen zian.
- Ze belar klase izaten zan onena iditako?
- Alpapa ta, izaten zian fuerte xamarrak, gaillego-urria ta... edozein belar, belarra... tripa bete ezkeru, ondo ibiltzen zian.
- Ta babaik-o ematen zeniyen hazitzeko?
- Pixkat, apustuba in bihar bazan ta.
- Apustutan ibiltzen ziñan, e?
- Ordun pixkat, baba pixkat botatzen zitziyen apustun.
- Atebete lehentxeo eo hola?
- Premiyotan ta pixkat ibiltzen giñan.
- Ta apustua preparatzeko ze... ze in behar izaten zan? Nola prepatzen zian? Baba eman bakarrik o gehixeo itten zenduen?
- Lana asko izaten du.
- Hizlaria2: Geo harriya eantsi ta ibili.
- Harriya erantsi ta ibilli bueltaka ta, eunero ta... lanik haundina hartan.
- Harriya etxen izaten zenun?
- E?
- Harriya, harriya etxen zenun zuk hoi iteko?
- Bai, ordun etxian zan.
- Ta nun ibiltzen ziñan, ze pruebatan?
- Oain dana kamiyua dao ta ordun biria zan, dana bire zaharra zan ta... bu, aixe moldatzen zan ordun.
- Eta apustu...
- Kamiyuan ez dao ibiltzeik oain, ordun ibiltzen [nitzan] bezela, ta puskatu [...] kamiyua.
- Apustuako ibiltzen zenitun idik zian laneako ibiltzen zenitunak?
- Bai.
- O bi pare ibiltzen zenitun ta bat gehixeo...?
- Laneako, laneako ibiltzen zian, etxian ibiltzen zianak.
- Ta ze prueba klasetan ibiltzen ziñan, ze apustu o nungo premiok o...?
- Gehiyenian Villabonan. Santiyotan jartzen zuen hor. Villabonan premiya Santiyotan jartzen zuen ordun urtero. Oain ez det uste izaten dianik / izateianik/.
- Hizlaria2: Hor eoten zan harriya. Oain ya kenduba eukiko due.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Zizurkilera Senegaldik (101-072/002)**

Sei urte daramatza Zizurkilen bizitzen. Senegaldik etorri zen.

### **2. Senegal inguruan ere hitz egiten da mandinkera (101-072/004)**

Mandinkera hizkuntza Mali, Burkina, Ganbia... Senegal inguruko herrialdeetan hitz egiten da; jende askok erabiltzen du.

### **3. Bere hurrei mandinkeraz (101-072/006)**

Bere hurrekin saiatzen da mandinkeraz egiten; telefonoz amarekin eta lagunekin egiten du. Hemen, Senegalgo bere lehengusuarekin ere bai, baina ez gehiegi. Senegal hegoaldean, Casamancen, gehiago hitz egiten da. Diola ere hitz egiten da bertan.

### **4. Senegalen, hizkuntza asko (101-072/007)**

Senegalen bertan hitz egiten diren hizkuntzak oso ezberdinak dira bata bestearekiko. Mandinkera bertsioa ez dago.

### **5. Senegalen neska euskaldun bat ezagutu (101-072/009)**

Neska euskaldun bat ezagutu zuen Senegalen, eta harremana mantendu zuten; oporrak zituenero hara joaten zen eta neska. Geroago, Bake ere Euskal Herrira etorri zen.

### **6. Aldaketa handia Senegaldik hona; euskara ikasteko prozesua (101-072/011)**

Aldaketa handia izan zen Zizurkilera etortzea; dena oso ezberdina da. Bera ere herri txiki batekoa da, baina hala ere ezberdin: etxeak, kaleak, janaria... baina gustura dabil familia eta umeekin. Hasieran ez zuen ezer ulertzen, ez zekien euskararik ez gaztelaniarik. Emaztearekin ingelesez egiten zuen, baina pixkanaka euskaraz, eta gero EPAn eman zuen izena eta horrela ikasi zuen. Kalean hitz egiten eta praktikatzen asko ikasi zuen.

### **7. Euskarak integratzen lagundu dio (101-072/013)**

Hasieran zaila egin zitzaion bertakoekin harremana izatea; hasteko hizkuntzagatik. Horri aurre egiteko euskara ikasten hasi zen, horrela jendearekin hitz egin zezakeen. Asko hobetzen ari da. Euskara ikasteak lagundu dio jendearekin erlazionatu ahal izateko. Eskolan baino gehiago ikasten ei da kalean.

### **8. Frantsesa eta ingelesa Senegalen ikasi zituen (101-072/015)**

Frantsesa eta ingelesa Senegalen ikasi zituen, baina hemen ia inork ez dakizki; beraz, euskara hobeto datorkio.

### **9. Bospasei hizkuntza Zizurkilen (101-072/017)**

Zizurkilen gutxi gorabehera bospasei hizkuntza hitz egiten direla pentsatzen du Bakek. Senegalen egunero bost-sei hizkuntza erabiltzen zituen.

### **10. Senegaldik gauza asko ditu faltan (101-072/018)**

Senegaldik gauza askoren falta igartzen du: familia, lagunak, janaria, hondartza, frutak, bere hizkuntza... noizean behin Senegalera itzultzen da, eta bertakoekin Skype-etik edo Wassap-ez ere hitz egiten du.

### **11. Familiarekin eta lagunekin dituen planak atsegin ditu (101-072/019)**

Hotza ez du gustuko. Familiarekin egotea, mendira joatea, bazkaria prestatzea, lagunekin egotea... dira atsegin dituen gauzak.

## **12. Hotzik ez, mesedez (101-072/020)**

Uda eta udaberria gustatzen zaizkio, baina hotza bestela batere ez.

## **13. Integrazio arazoak izatea ohikoa da (101-072/021)**

Integrazio arazoak izateari normala deritzo: batzuk gaizki begiratuko zaituzte, beste batzuk jatorrak dira; halakoa da bizitza!

## **14. Senegalen, denak senegaldar (101-072/022)**

Etorkin maila ezberdinak daude: balantza batzuen alde eta besteen kontra dago (afrikarrak); ohituta dago. Senegalen ez da hori gertatzen kanpotarrekin.

## **15. Hitz eginda ulertzen da jendea (101-072/024)**

Integrazio eta arrazakeria arazoak jendearekin hitz eginez eta irekiz konpondu daitezke, jendea elkartuz. Zizurkilen pozik dago, ez du arazorik.

## **16. Mandinkeraz hogeit hitz (101-072/026)**

Mandinkeraz oinarritzko 20 hitz. Hiztegia.

## **17. "Baraka": mandinkeraz "eskerrik asko" (101-072/028)**

Gustuko hitza mandinkeraz "eskerrik asko" du: "baraka".

## **18. Gizonen inimiziazio abestia, mandinkeraz (101-072/030)**

Gizonak basora inimiziazioan joaten direneko abestia kantatzen du, mandinkeraz.

## **19. Turkiako kurdistandarra (101-076/002)**

Omarrek 36 urte ditu, eta Turkiako gobernuaren eskumenean dagoen Kurdistandik dator. Bi urte daramatza Donostian.

## **20. Kurdueraren inguruko datu batzuk (101-076/004)**

40 milioi pertsonak hitz egiten dute kurduera, eta hiztunak lau herrialdetan banatuta daudenez (Turkia, Iran, Irak eta Siria), herrialde bakoitzeko hizkuntza ofizialen bizikide dira.

## **21. Kurdueraren egoera Turkian (101-076/006)**

Kurduera hitz egiten den herrialdeetan (Siria, Iran, Irak eta Turkia) arazoak daude. Turkian bereziki, arazo larriak daudela dio (gerraz mintzatzen da), nahiz eta hemengo hedabideek ezer ez esan.

## **22. Diyarbakir herria, turkiarrek deuseztua (101-076/007)**

Diyarbakir herria, gizadiaren ondarea zena, turkiarrek deuseztun zutela dio, eta Unescok gai horren inguruan mantentzen duen isiltasunaz ere mintzatzen da.

## **23. Kurduen egoera politikoa zaila (101-076/008)**

Omarrek kurduen egoera politikoa zailaren berri ematen du. Europar Batasunari, errefuxiatuen gaiarengatik turkiar gobernuarekin duen akordioa dela eta, koldarkeriaz jokatzeari leporatzen dio.

## **24. Kurduak baztertuta Turkiako Parlamentuan (101-076/009)**

Turkiako Parlamentuan lau partidutatik hiru ados jarri ziren 60 parlamentari kurduak kartzelan sartzeko. Bestalde, gehiengo galdua ikusita, baliogabetzat jo zituzten kurduak garaile atera ziren hauteskundeak.

## **25. Kurdistanen bigarren indarra, Erdoganena (101-076/010)**

Kurdistanen bigarren indarra Erdoganena da, erlijioari esker. Erdoganek gehiengo galtzen zuela konturatuta, turkiar gobernuak beste hauteskunde batzuk egitea erabaki zuen. Omarrek joku zikina salatzen du.

## **26. Kurduen egoera politikoa Parlamentuan (kurdueraz) (101-076/011)**

Omarrek kurdueraz adierazten du kurduak nolako egoera bizi duten Turkiako Parlamentuan.

## **27. Kurduen alderdiaren politika (101-076/013)**

Omarrek alderdi kurduaren politika egiteko eraz dihardu. Kurduen alderdiak sistema laikoa defendatzen du. Ekialde Ertainean, emakumearen presentzia bermatzen duen bakarra dela dio.

## **28. Kurduen alderdiaren eskaerak (101-076/014)**

Alderdi kurduak baditu, independentzia eskaera baino lehen, beste hainbat eskaera: demokrazia Turkia osoan, besteak beste.

## **29. Turkian indarrean dagoen legedia (101-076/015)**

Turkian egun indarrean dagoen legedia 1982an jasandako estatu kolpe baten ondorioa da. Turkiarrek ez daukate egoera aldatzeko asmorik. PKK alderdikoak terroristak zirela esan, eta ez zuten beraiekin politika egin nahi, eta orain 60 diputatu dituztenean ere ez.

## **30. Kurduen bi aukerak (101-076/016)**

Kurduei bi aukera soilik gelditzen zaizkiela dio Omarrek.

## **31. Kurduen egoera Turkian (kurdueraz) (101-076/018)**

Omarrek, kurdueraz, Erdoganek eskubide guztiak kendu nahi dizkiela azpimarratzen du. Sultana izan nahi duela dio. Turkiar alderdiek ere ez dietela kurduei eskubiderik eman nahi gogorarazten du.

## **32. Kurduen egoera latza (kurdueraz) (101-076/019)**

Turkian kurduak duten egoera politiko latzaren inguruan hitz egiten du Omarrek, kurdueraz.

## **33. Herrialde desberdinetako kurduak elkar ulertzen dute (101-076/021)**

Kurduerak hainbat dialekto ditu. Turkian bertan dialekto desberdinak daude, baina elkar ongi ulertzen dute.

### **34. Kurduera nola idazten den (101-076/023)**

Sirian eta Iraken hitz egiten den kurduera arabiar alfabetoa erabiliz idazten da, Iranen persiar alfabetoa erabiltzen dute eta Turkian, berriz, latindarra.

### **35. Kurduera batua sortzeko ahaleginetan (101-076/026)**

Etorkizunari begira, lau herrialdeetan hitz egiten diren kurdueretatik kurduera bateratu bat egiteko lanean ari dira.

### **36. Kurduera ofizial baten aldeko borroka (101-076/028)**

Turkiar gobernuak eta PKK alderdia adostasun batera iritsi ziren une batean, eta kurduera hizkuntza ikasteko eskolak ireki ziren, hemengo euskaltegien modura (nahiz eta han pribatuak izan). 2013tik aurrera, ordea, turkiar gobernuak kurduerari gerra deklaratu ostean, debekatu egin zituzten; eta unibertsitate kurdua ere bai.

### **37. Kurduera ofizial baten aldeko borroka (kurdueraz) (101-076/029)**

Omarrek kurdueraz hitz egiten du, bere hizkuntzak ofiziala izateko dituen zailtasunetaz.

### **38. Kurdueraz norekin hitz egiten duen orain (101-076/031)**

Pertsona bakarrakin hitz egin dezake kurduera, eta Bilbon bizi den euskaldun bat da. Telefonoz etxekoekin kurdueraz jarduten du. Bere gurasoek ez dakite turkiera: kurduera soilik hitz egiten dute.

### **39. Bikotekide euskalduna (101-076/033)**

Euskal Herrira 2014an etortzeko aukera izan zuen. Bere bikotea hemengoa da, eta Euskal Herriaren berri bazuen etorri baino lehen. Hala ere, bere edertasunak harrিতa uzten du. Hemen oso gustura bizi da.

### **40. Bikotekide euskalduna (kurdueraz) (101-076/034)**

Omarrek Euskal Herrira etortzeko arrazoien inguruan kurdueraz jarduten du.

### **41. Gaztelaniaz lau hitz zekizkien, iritsi zenean (101-076/036)**

11 urterekin atera zen bere gurasoen etxetik eta 15 urterekin jada bakarrik bizi zen. Hiriz hiri ibili da: Zipre, Istanbul... Euskal Herria izan zen, iristerakoan, hizkuntza ulertzen ez duen lehen herria.

### **42. Gaztelania ikasteko prozesua (101-076/037)**

Helduen Hezkuntza Eskolan bere kabuz aritu da ikasten, eta Hizkuntzen Eskola Ofizialean bi ikasturte batera gainditu ditu. Bere hurrengo helburua B1 titulua ateratzea da.

### **43. Kurdueraz eta euskaldunek antzeko kulturak (101-076/039)**

Omarrek euskaldunekin ez du arazorik izan. Euskalduneki bihotza ukitzean erabat irekitzen direla dio. Kurdueraz eta euskaldunen kulturak nekazal munduan sustraituak egoteak antzeko egiten dituela dio.

#### **44. Kurduiek eta euskaldunek antzeko kulturak (kurdueraz) (101-076/040)**

Omarrek euskaldunekin ez du arazorik izan. Euskaldunei bihotza ukitzean erabat irekitzen direla dio. Kurduen eta euskaldunen kulturak nekazal munduan sustraituak egoteak antzeko egiten dituela dio. (kurdueraz)

#### **45. Dokumentuak legeztatzekeo prozesua (101-076/042)**

Ez du arazorik izan dokumentuak legeztatzekeo, ez eta bertakoekin harremantzekeo ere. Omarrek ez du legez kanpo egon nahi hemen. Bere bikotearekin "izatezko bikote" formula erabiltzea adostu zuten, bere egoera Euskal Herrian legeztatzekeo.

#### **46. Dokumentuak legeztatzekeo prozesua (kurdueraz) (101-076/043)**

Bere bikotearekin "izatezko bikote" egitea erabaki zutela adierazko du Omarrek, kurdueraz.

#### **47. Donostian 50 hizkuntza baino gehiago (101-076/045)**

Donostian 50 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla uste du. Donostia hiri kosmopolita iruditzen zaio. Bere lanbidearengatik, erraza egiten zaio jendearen jatorria asmatzea.

#### **48. Kurdistandik faltan sentitzen duena (101-076/047)**

Kurduen abegi ona, poza eta dantzatzeko grina dira gehien faltan sentitzen dituenak.

#### **49. Bizitzera Donostiara joateko asmotan (101-076/049)**

Zizurkilen bizi da bere bikotearekin, baina Donostiara joateko asmoa dute. Aukera asko eskaintzen dituelako atsegina du Donostia: mendia, leku askotako jendea ikusteko aukera eta itsasoa, besteak beste.

#### **50. Euskal Herritik gustatzen ez zaion gauza bakarra (101-076/051)**

Omarri Donostiatik eta oro har Euskal Herritik gustatzen ez zaiona kaleetan txakur-kakak topatzea da.

#### **51. Etorkizunari begira dituen nahiak (101-076/053)**

Etorkizunari begira, turismotik at lana topatzea gustatuko litzaioke baina, krisia dela eta, oraingo ez du posible ikusten. Donostiako Alde Zaharreko jatetxe batean lanean hastea nahiko luke.

#### **52. Euskara ikasteko asmoa zuen, etorri zenean (101-076/055)**

Etortzean euskara ikasi behar zuela oso garbi zeukala dio, baina gaztelania ikasteko premia handiagoa zen lana lehenbailehen aurkitzekeo.

#### **53. Euskara ikasteko asmoa zuen, etorri zenean (kurdueraz) (101-076/058)**

Omarrek kurdueraz hitz egingo du, Euskal Herrira etorri eta gaztelania ikasi beharraz.

#### **54. Oinarrizko hitz batzuk kurdueraz (101-076/060)**

Omarrek oinarrizko hitz batzuk esaten ditu kurdueraz.

#### **55. Kurdueraz gehien gustatzen zaizkion hitzak (101-076/062)**

Kurdueraz gustukuen dituen hitzetaz mintzatzen da Omar.

#### **56. Kanta bat kurdueraz (101-076/064)**

Omarrek kanta bat abesten du, kurdueraz, eta bere esanahia argitzen du.

#### **57. Euskaraz hitz batzuk ikasi ditu (101-076/066)**

Omarrek hitz batzuk esaten ditu euskaraz.

#### **58. Aingerutan hildakoak (ZIZ-002/003)**

Lehen ume asko hiltzen ziren txikitan. Aingerutan hiltzen zirenak aparte enterratzen zituzten. Fraisoroko egoitzan hiltzen zirenak leku berezia zuten herrikoen hilobietatik aparte.

#### **59. Fraisoroko egoitza (ZIZ-002/004)**

Fraisorora ezkongabetan haurdun gelditzen zirenak etortzen ziren. Herriko batzuk bertakoei ikastaroak ematen zizkien, sukaldaritzan ikasteko eta. Fraisoroko umeak bisitatu zituenean, maitasuna falta zitzaizela iruditu zitzaion.

#### **60. Fraisoroko egoitzan (ZIZ-002/005)**

Garai batean amek Fraisoron umeak uzten zituzten, baina beranduago amak bertan gelditzeko aukera izaten zuten, umeen hoberako. Ama haiei ematen zizkien ikastaroak. Lesmes Fraisoron ibili zen garaian bertan 99 ume zeuden.

#### **61. Fraisoroko umeei ez zitzaizkien gauza materialak falta (ZIZ-002/006)**

Fraisoroko egoitzan umeen armairuak txukun-txukun zeuden. Mojak lan handia egiten zuten. Umeei ezer materialik ez zitzaien falta. Umeek txikitan maitasuna behar dutela pentsatzen du ordu ezkerro. Ume guztiak hiru urte bitartekoak ziren. Jendea ume bila joaten zen Fraisorora.

#### **62. Fraisorora emakume bila (ZIZ-002/007)**

Batzuetan inguruko gizonak emakume bila joaten ziren eta hiru emakumeren artean aukeratu behar izaten zuten ilunpetan. Hori berak ez du ikusi, baina esaten zituzten gauzak dira.

#### **63. Ezkongabetan haurdun gelditzea lotsa zen familiarentzat (ZIZ-002/009)**

Fraisoron egona izatea betirako marka izan zitekeen. Esnea partitzen zebilenean haurdun gelditutako neska baten berri izan zuen eta haren amak sufrimendu handia zuela dio, familiako lotsa bezala hartzen zen. Lesmesen ustez behin gertatuz gero neskari laguntza eskaini behar zaio.

#### **64. Sukaldaritza ikastaroak antolatzen zituzten herrian I (ZIZ-002/012)**

Kalean ikastaroak egiten zituzten urtean behin edo bitan. Koaderno batean apuntatzen zituzten sukaldariak emandako errezetak. Hamabost bat emakume juntatzen ziren. Dirua jartzen zuten sukaldaria ordaintzeko. Egindako janaria zozkatu egiten zuten. Ezkondutako emakumeak ziren gehienak. Gizonezkoak ere parte hartzen zuten, baina sukaldaritzan ikasten ez. Helburua herriko jendeari zerbait erakustea zen.

#### **65. Sukaldaritza ikastaroak antolatzen zituzten herrian II (ZIZ-002/013)**

Jendeak ikasteko interesa izaten zuen. Sukaldaria behin Oiartzunetik ekarri zuten. Errezeta desberdinak erakusten zizkien. Asko ikasten zuten.

#### **66. Idiak kendu eta uztarriko behiak jarri (ZIZ-002/015)**

Oiartzunen esne asko zegoen eta Zizurkilen berriz gutxiago. Orain alderantziz gertatzen da. Ezkondu aurretik Donostiara eta Errenteriara joaten zen esnea eta barazkiak saltzera, asto gainean. Oiartzunen behiekin uztarrian ibiltzen ziren. Zizurkilen, berriz, idiak mendian ibiltzeko mantendu behar ziren. Horregatik idiak kendu egin zituzten eta uztarriko behiak jarri zituzten.

#### **67. Bretxako azokara fruta eta berdura saltzera (ZIZ-002/016)**

Etxean terreno nahikoa zuten eta lan asko egin behar izan dute. Gaur ere baserriko lana gogorra da, ez da batere hobetu. Fruta asko zuten eta plazara joaten zen saltzera. Asto gainean jaisten ziren eta Villabonan trolebusa hartzen zuen, hasieran Tolosara eta gero Donostiako Bretxako azokara. Bretxan berrogei urte pasa ditu.

#### **68. Bretxako azokan fruta eta berdura saltzen (ZIZ-002/017)**

Bretxako azokaren kanpoaldean espaloia zegoen eta hantxe jartzen ziren, arrantzaleen ondoan. Fruta eta barazkia saltzen zuten. Ez zuten postu finkorik, baina halere pagatu egin behar zuten. Garai hartan sei edo zortzi pezeta ordaintzen zituzten. Beranduago barruko azokakoak kexatu ondoren, barruan sarrarazi zituzten.

#### **69. Merkatura iristeko karreteroari ordaindu (ZIZ-002/018)**

Astean hiru edo lau aldiz joaten zen azokara. Donostiara iristean karreteroari ordaindu behar zioten trolebusetik edo trenetik azokaraino gauzak eramaten laguntzeko. Saski bakoitzeko ordaintzen zioten. Karreteroak berak tiratzen zion karroari eta saltzaileek atzetik bultza egiten zuten.

#### **70. Azokan saltzeak kostu handia zuen (ZIZ-002/019)**

Azokara iristeko bide luzea zuten: astoarekin jaitsi, trena hartu, karreteroari laguntza eskatu jeneroa garraiatzeko, postua ordaindu, saldu eta gero buelta. Kontuak atera behar ziren merezi zuen ikusteko. Inoiz, batek postua ordaindu eta ondokoaren produktuak saltzen zituzten.

## **71. Bretxako azokan loreak saltzen (ZIZ-002/020)**

Loreak, bai sortan eta baita lur eta guzti, saldu izan ditu azokarako bidaiarako dirua lortzeko asmoz. Jendeak balkoietarako erosten zizkien. Lore haiek hazia ekarrita etxean jartzen zituztenak ziren. Kontua etxera dirua ekartzea zen. Irabazi gehiena baratzetik ateratzen zuten. Baserriko bizimodua gaur ere gogorra dela pentsatzen du.

## **72. Emakumeak autoa izatea gaizki ikusita zegoen (ZIZ-002/021)**

Gidatzeko agiria atera zuenean, gauzak hobetu ziren. Berrogeita bi urte zituen gidabaimena lortu zuenean. Emakume gutxiak zuten gidabaimena Zizurkilan. Esamesengatik ez zuen lehenago baimena atera. Emakumeak autoa erostea ez zegoen ongi ikusita, harrokeriatzat hartzen zen. Jendeak gaizki hitz egiten zuen autoa erosi zuelako.

## **73. Amari bisita egiteko egun osoko ibilbidea (ZIZ-002/022)**

Autorik ez zuenean Oiartzunera joateko lehenengo oinez jaitsi behar ziren geltokiraino. Trenez Erreteriarra, handik autobusa hartu eta ondoren oinez berriro ere. Egun osoa behar zuen amari bisita egitera joateko. Oinetakoak aldatu behar zituzten mendiko bidea egin ahal izateko. Autoa duenetik gauzak asko aldatu zaizkio.

## **74. Gona luzeak amonaren garaian (ZIZ-002/026)**

Garai batean emakume guztiak gona jantzita ibiltzen ziren. Gona oso luzea eramaten zuten bere amaren garaian. Gaztetan gona motz eta estuen moda etorri zen. Amak gona luzatzeko esaten zion belaunak ikusten zitzaizkiolako. Amona arropa oso luzeekin ezagutu zuen.

## **75. Jantzeko moduaren aldaketa 12 urtetik aurrera (ZIZ-002/027)**

Berrogei urte inguru zituenean, jarri ziren modan gona estu eta motxak. Eserita jartzeko arazoak izaten zituzten. Nerabe zenean, belaunaren azpitik eramaten zituzten soinekoak. Hamabi urte betetzen zituztenean neskak galtzerdiak jartzen zituzten eta gizonezkoek galtza luzeak. Aldaketa hori egiteko egun seinalatu bat aukeratzen zuten.

## **76. Galtza luzeak janztearen esanahia (ZIZ-002/028)**

Oiartzungo iloba bati galtza luzeak janzteagatik behar baino lehenago gizon egin zutela esaten zioten. Mutilak neguan ere galtza motzekin joaten ziren umetan.

## **77. Festatik etxera egun argiz itzuli beharra (ZIZ-002/029)**

Galtzerdiak janzteak bileratara joateko adina suposatzen zuen. Bilerak plazan egiten zituzten dantzaldiak ziren. Etxera Ave Mariatarako bueltatu behar zuten, egun argiz. Galtzerdi meheak izaten ziren, oraingoan antzekoak, ligarekin eutsitakoak. Garai hartan, mundua oso itxia zen eta oraingoa berriz libreegia. Tarte bilatu beharko genukeela pentsatzen du.

## **78. Modaren aldaketak (ZIZ-002/030)**

Gaur egun nahi dugun bezala jantzi gaitzkeela iruditzen zaio. Lehen denak antzera janzten ziren. Lehen arropa nola moztuta zegoen begiratzen zuten,

erakusleihoetan begiratzten zuten. Gaurkoa oso desberdina da. Lehen gauza normalagoak erabiltzen ziren.

### **79. Idi-apustuak (ZIZ-006/010)**

Idi-apustueta ea nork egiten zituen plaza gehien zen kontuan hartzen zena. Inguruko herrietako dozena erdi bat partaide izaten ziren. Harriak bi mila kilokoak izaten ziren. Tolosako harria hobe izaten omen zen. Antonioren anaia gehiago ibiltzen zen.

### **80. Segako afizioa (ZIZ-006/013)**

Segako afizioa ere izan du, baina etxean lan handia zegoenez ez zuen denborarik. Segako apustueta ibiltzeko prestatu egin behar izaten da eta ez zegoen horretarako aukerarik.

### **81. Ahari jokoak Azpeitian (ZIZ-006/016)**

Ahariekin jokoetan asko ibili ziren. Azpeitia aldera buelta asko egin zituzten ahari jokoetan ibiltzeko. Elkarrizketa egin genionean ere joaten zen Antonio Azpeitira. Ahari jokoetan epaile bat izaten da. Zizurkilen bada horrelako epaile bat. Epaileak erabakitzen du noiz apartatu eta horrelako gauzak. Joko horietako baldintzak azaltzen ditu.

### **82. Etxean ahariak zituzten (ZIZ-006/017)**

Elkarrizketa egin baino ez askoz lehenago, Azpeitian izan zen ahari-jokoetan. Udar ez da horrelako jokorik izaten, udazkenean hasten dira. Etxean hiru edo lau ahari izaten zituzten. Iluntzean paseatzera eramaten zituzten. Jateko babak eta berdurak ematen zizkien.

### **83. Gosea gerra garaian (ZIZ-006/019)**

Gerra garaian, gosea izaten zen, oliorik ez zegoen, kontrabandoan ekartzen ez bazuten behintzat. Esnea eta arrautzak bazituzten. Kalekoek okerrago pasa zuten. Donostiako lehengusuek zazpi ume zituzten eta ezkutuan baserritik babarrunak eramaten zituzten. Behin izebak babarrun haiek nola ezkutatu zituen kontatzen digu. Izebak ezkutuan janaria eramaten zuen, oso arriskutsua zen arren.

### **84. Baserrian beti zegoen jatekoa (ZIZ-006/021)**

Baserrian ez zuten goserik pasa. Ogia eta olioak ziren gehien falta zitzaiena. Arrautzak gordirik ere jaten zituzten. Egunean zortzi edo bederatzi arrautza jan izan ditu. Hala ere, ez du sekula gibelego arazorik izan. Bularrean mantxa bat bilatu zioten eta ez nekatzeko esan zioten.

### **85. Gerra denboran baserritik atera behar izan zuten (ZIZ-006/024)**

Gerra denboran soldaduak etorri ziren. Inguruetako ikuspegi ona zegoelako sartu ziren erreketek Zizurkilen. Etxe guztia miatu zuten, eta kapitainak bertan 90 lagunentzako lekua zegoela esan zuen. Orduan familiakoek auzoko baserrira joan behar izan zuten. Erreketeak joan zirenean, falangistak etorri ziren eta orduan etxera itzuli ziren. Beranduago, herriko mutilak etorri ziren eta haiek ere etxean egon ziren.

### **86. Erreketeak joan zirenean, etxea hankaz gora (ZIZ-006/025)**

Gerra denboran, etxea soldaduek okupatu ondoren, baserria hankaz gora utzi zuten. Erreketeak izan ziren gauzak okerren utzi zituztenak. Garai hartan, Antonio umea zen eta tartean ibiltzen zen, haiekin ogia jaten.

### **87. Tiroak Zizurkileko mendietan (ZIZ-006/028)**

Behin, gerra garaian soldaduekin zebiltzala, mendira igo ziren eta tiro-hotsa entzun zuten. Gorriak ondoko mendian omen zebiltzan. Antoniok alkandora zuria zeraman eta ondoan zeukan soldadua zauritu zuten. Asto gainean hartu eta plazara eraman zuten.

### **88. Eliz-sartzea (ZIZ-020/001)**

Emakumeak umea izan eta hamar bat egunetara emakumea kandela hartuta elizara joan behar izaten zen, baina ate txikitik sartuta.

### **89. Tratua Donostian saltzen zuten (ZIZ-020/003)**

Bi urterekin Iriarte etxera mugitu zen. Baratzea zuten bertan, eta bertatik ateratzen zuten bizimodua. Aita hargina zen. Tratua Donostian saltzen zuen amak.

### **90. Zortzi senideko familia (ZIZ-020/005)**

Zazpi seme eta alaba bakarraz osatutako familia zen Teodororena. Aita berrogeita zortzi urterekin hil zen.

### **91. Garai bateko Zizurkil (ZIZ-020/006)**

Zizurkil nolakoa zen eta Zizurkilgo arbolari buruz hitz egiten du pasarte honetan.

### **92. Zizurkilen auzolana besterik ez (ZIZ-020/007)**

Elkarri laguntzen ibiltzen ziren baserritarrak.

### **93. Gerra hasi zen eguna (ZIZ-020/008)**

Teodorok hamaika urte zituela hasi zen gerra. Opor garaia zen, eta arrantzatik bueltan zirela herriko apaizak gerra hasi zelaren berria eman zien.

### **94. Nafarrak Zizurkilen sartu zirenekoa (ZIZ-020/009)**

Abuztuan Tolosan sartu ziren nafarrak eta ondoren Zizurkilen eta Asteasun.

### **95. Erreketeak inguruko herrietan (ZIZ-020/010)**

Inguruko herrietan gerraren hasiera eta erreketeen sartzea nolakoa izan zen azaltzen du Teodorok.

### **96. Jendea gerratik ihesi (ZIZ-020/012)**

Inguruko errepublikar askok ihes egin zuten. Emakume bat ezkutatu eta ezkutalekuan bonba jarri zuten.

### **97. Nazionalistek herritik ihes (ZIZ-020/014)**

Gerraren ondorioz bi nazionalista hil zituzten Zizurkilek, gainontzekoek ihes egin zuten eta hiltzetik salbu gelditu ziren. Apaizak garbitu zien aurpegia.

### **98. Fusilatu aurretik apaizarekin konfesatu (ZIZ-020/015)**

Zizurkilen urnietar eta pasaitar bat hil zituzten gerra garaian, errepublikarrak edo nazionalistak izanagatik. Pasaitarrak hil aurretik apaiza ekartzeko eskatu zuten.

### **99. Gerraosteko gosea (ZIZ-020/017)**

Gose handia pasa zuten 40-41 urteetan. Errazionamenduan pasa zituzten hamar urte, oliorik gabe, eta ogi gutxirekin.

### **100. Baserritarrek uzta eman beharra (ZIZ-020/018)**

Jasotako uztaren zatirik handiena eman behar izaten zuten baserritarrek. Errotak ere itxi egin zituzten. Jende asko hil zen goseak eta gaixotuta.

### **101. Abere-hiltzea isilpean (ZIZ-020/020)**

Isilpean egiten zen txerri-hiltzea, gerraostean ez baitzegoen onarturik.

### **102. Eguneroko otorduak (ZIZ-020/021)**

Esnea, babak eta babarrunak izaten ziren ohiko jakiak Teodororen etxean. Antxoa eta sardina ere ekartzen zituzten Pasaatik. Sagardoa edaten zuten etxean, aitak sagardotegia baitzuen.

### **103. Harrobian lanean (ZIZ-020/023)**

1938. urtean eskola utzi eta lanean hasi zen harrobian. Dinamitarekin egiten zuten lan askotan.

### **104. Harrobiko lana (ZIZ-020/024)**

Harria labeetan sartu, eta ondoren txikitu egiten zuten.

### **105. Kaolinarekin lanean (ZIZ-020/027)**

Kaolinarekin lanean aritu zen beste lau bat urtez.

### **106. Subijana oihal-lantegia (ZIZ-020/028)**

Subijana oihal-lantegian Zizurkilgo eta Billabonako jende asko aritu zen lanean. Algodoa izaten zen euren material nagusia.

### **107. Villabonako pilotariak (ZIZ-020/030)**

Pedro Yarza pilotari handia izan zen Villabonan, eta askori irakatsi zien pilotan, besteak beste, Ugartetarrei, Santa Mariatarrei...

### **108. "Villabona-Zizurkil" geltokia (ZIZ-020/032)**

Trena eraikitzeke dirua Villabonako bi familia handik jarri zuten, treneko kartelean "Villabona-Zizurkil" jartzea erabaki zen.

### **109. Bederatzi urtekin bizargin lanetan (ZIZ-020/034)**

Bederatzi urtekin ikasi zuen bizargin lana. Beranduago, soldadutzan, bizargin moduan ere aritu zen, baita herrian ere.

### **110. 1918ko gripea (ZIZ-020/036)**

Gripe bortitz bat izan zen Zizurkil inguruan, penizilinarik ez baitzuten orduan.

### **111. Otañoren bertsoak (ZIZ-020/038)**

### **112. Txirrita ezagutu zuenekoa (ZIZ-021/002)**

Sei-zazpi urtekin ezagutu zuen Txirrita, Zizurkilen bertan. Oroitzen du Txirritaren omenez lehiaketa bat eta emanaldi bat egin zituela Aitzolek.

### **113. Txirritaren heriotza eta bertsoa (ZIZ-021/004)**

Ekainaren 3an hil zen Txirrita. Behin Goizuetara bertsotan joateko taxi batean sartu eta gidariak "zer ote da zahartzea" galdetu zionean, "ikasiko dezu bizi bazea" erantzun omen zion. Handik pare bat egunetara hil zen.

### **114. Millan Salaberria, osaba bertsolaria (ZIZ-021/007)**

Osaba bertsolaria zuen, Millan Salaberria, eta hari esker jaso du bertsozaletasuna.

### **115. Osabaren bertsoa (ZIZ-021/008)**

Osaba bertsolaria zuen Teodorok, Millan Salaberria. Behin gazte kuadrila bati bota zion bertsoa.

### **116. Zurrutari buruzko bertsoa (ZIZ-021/009)**

Amabirjinaren egunean osabak bota zion bertsoa kantatzen du Teodorok pasarte honetan.

### **117. Osaba bertsolariaren bizitza (ZIZ-021/010)**

Millan Salaberria, Teodororen osaba, bertsolaria zen. Atezain gisa egiten zuen lan.

### **118. "Ez da bertsoa bakarrik, musika ere hor dago" (ZIZ-021/011)**

Gerra garaian ez zen bertsolaririk ia bertsotan jarduten. Ondoren hasi ziren berriro. Basarri, Uztapide, Zepai... ziren garaiko bertsolariak. Bautista Hondartza eta Uztapide Zizurkilgo plazan bertsotan aritu zirenekoa.

### **119. Teodororen idazteko zaletasuna (ZIZ-021/014)**

Teodorok Zabalari lagundu zion Pedro Mari Otañori buruzko liburu batekin. Errekaldeko Intxaurren Itzala argitaratu zuen Teodorok berak.

### **120. Lizardiri buruzko bertsoak (ZIZ-021/016)**

Teodoro idazlea da, eta zenbait bertso idatzi ditu, haien artean, Lizardiri zuzendutako hauek.

### **121. Aita Zabalarekin lanean (ZIZ-021/018)**

Aita Zabala tolosarra zen, baina Adunan bizi zen, Txanpon Etxen. Bertsoak jasotzen ibili ohi zen, eta Teodorok bertso batzuk eman zizkion. Gero Pedro Mari Otañoren liburuak bukatzen lagundu zion.

### **122. Peio Errotak irina eramaten zuen (ZIZ-021/020)**

Peio Errotak gari irina eramaten zuen Zizurkilera eta Aiara astoarekin batera.

### **123. "Karidaderen benta" eta Pedro Mari Otaño (ZIZ-021/022)**

Pedro Mari Otaño 1910. urtean hil zen. Gaztea zenetik hasi zen bertsolariekin elkartzen, Karidaden.

### **124. Plazida Otañori bertsoak (ZIZ-021/024)**

Plazida Otaño, Joxe Bernardo Otañoren alaba, bertsolari ere izan zen eta hari Juan Joxe berak abestutako bertsoak abesten ditu Teodorok pasarte honetan. Gaizki ikusirik zegoen emakumea tabernan sartzea, baita bertsoan aritzea ere.

### **125. Atsolorrean bertsoan (ZIZ-021/026)**

Emakumeak antzutzen zirenean, auzokoak elkartu eta atsolorra egiten zutela dio, bazkari batekin batera. Emakumeak elkartu eta bertsoan aritzen ziren denak batera.

### **126. Basarri eta Uztapideren bertsoak (ZIZ-021/028)**

Basarri eta Uztapide aritu ziren behin Luistarren egunean bertsoan.

### **127. Bertsolariak, mozkor fama? (ZIZ-021/029)**

Mozkor fama handia zuten bertsolariak. Basarrik, ordea, ideia horren kontrako irudia zabaldu zuen.

### **128. Gerra garaiari buruzko bertsoak (ZIZ-021/031)**

Gerrari buruzko bere bertsoak errezzitatzen ditu Teodorok pasarte honetan.

### **129. Soldadutza Iruñean (ZIZ-021/033)**

Soldadutzan Iruñean egon zen. Oroitzapen onak ditu Teodorok, bizargin. Liburu bat irakurtzeak asko lagundu zion garai hartan. Denetariko lanak egin zituen.

### **130. Bere kabuz idatzi eta irakurri (ZIZ-021/034)**

Etxean Testamentu Zaharreko liburuak izaten zituzten, eta askotan irakurtzen zituen hauek. Hamalau urte bete arte joan zen eskolara, eta idazten eta irakurtzen bere kabuz aritu zen.

### **131. Hamaika lan egindako gizona (ZIZ-021/035)**

Denetariko lanak egin ditu Teodorok bere bizitzan zehar, fresadoran, motorrak egiten... Bizargin lanetan ere urte mordoa pasa zuen, lan eta lan egun osoan.

### **132. Infernuaren beldur (ZIZ-021/038)**

Bizimodua asko aldatu dela dio Teodorok, eliza oso zurruna zela, infernuaren beldur handia baitzuten.

### **133. Gizonak gehiago ateratzen ziren (ZIZ-021/040)**

Emakumea asko zigortzen zen garai batean, etxera mugatzen baizen bere bizitza, sukaldean. Etxeetako egitura ere asko aldatu da denborarekin.

### **134. Bertsolariak asko aldatu dira (ZIZ-021/042)**

Bertsolarien izaera asko aldatu dela dio Teodorok, eta honen inguruko bertsoa errezitatzen du.

### **135. Ateak beti zabalik (ZIZ-021/044)**

1950. urtean ekarri zuten irratia etxera Teodororen etxean. Irratirik ez zuenak bizilagunen etxean entzuten zuen. Ateak zabalik izaten ziren beti.

### **136. Garai bateko telebistak (ZIZ-021/046)**

Telebista 1960tik aurrera ekarri zuten etxeetara. Garai bateko telebistak, ordea, ez ziren oraingoak bezalakoak.

### **137. Telefonistak ematen zituen enkarguak (ZIZ-021/047)**

Telefonoz deia egiteko, Zizurkilen bertan zegoen zentralera joaten ziren. Bertan telefonista egoten zen, emakumea.

### **138. Hilotzarekin gaua pasa (ZIZ-021/048)**

Norbait hildakoan, ohitura zen gorputza bakarrik ez uztea, eta jendeak gaua pasatzen zuen bertan. Argizaiola elizara eramateko ohitura bazen Zizurkilen, baina gero galdu egin zen.

### **139. Abertzalea izateagatik lanetik kaleratua izan zen aita (ZIZ-023/004)**

Zizurkilen aita udal-langilea zen. Etxean euskaraz egiten zuten, baina umetan irakurzaletasun handia zuenez, gaztelaniaz ere moldatzen zen. Aita udaletxetik bota zuten EAJri botoa eman eta abertzalea izateagatik.

### **140. Zaragozan eta Madrilen euskaraz hitz egiten (ZIZ-023/008)**

Zaragozara ikastera joan zenean, Elgoibarko Rosa Garatek esan zion bere anaia Gotzon bisitatzeko. Gotzonekin astero elkartzen zen euskaraz hitz egiteko. Gero Madrilen podologia ikasketak egin zituen eta bertako ikasle euskaldunak beraien artean asko elkartzen ziren ekintzak egiteko: euskarazko mezak, hitzaldiak, alfabetatze klaseak...1970ean, ikasketak bukatuta, Elgoibarrera bueltatu zen eta Ongarri eta Izarra elkarteetan parte hartzen hasi zen.

#### **141. Elgoibarko Izarra elkarte (ZIZ-023/010)**

Ongarri kultur elkarte Elgoibarko izarra baino lehenago sortu zen. Felix "Parapan" eta Luis Bilbao joan zitzaizkion etxera bila, Elgoibarko Izarrako batzordean sartzeko eta hurrengo lehendakaria izateko eskatzeko. Baiezkoa eman zien. Elgoibarko izarran gau-eskolak, euskal dantzak, euskarazko klaseak... antolatzen ziren.

#### **142. Elgoibarko ikastolaren hasiera (ZIZ-023/011)**

Elgoibarko emakume bat bere etxean ume batzuei euskaraz klaseak ematen hasi zen. Gero beste emakume bat hasi zen hari laguntzen eta gutxinaka ikasle eta irakasle kopuruak handitzen joan ziren. Hori izan omen zen Elgoibarko ikastolaren sorrera.

#### **143. Elizaren laguntza ikastolaren ofizialtasunean (ZIZ-023/012)**

Gobernadore zibilak ikastola itxi nahi zuen, klandestinoak zirelako. Ikastolek ordurako federazio edo elkarte bat sortua zuten eta ofizialtasuna lortzeko elizaren laguntza behar zuten. Elgoibarren San Bartolomeko eskola parrokialak sortu ziren, Jon Beristain abadea buru zela. Ikasleek kartila ofizial batzuk behar zituzten eta Santa Klarako mojen bitartez lortu zituzten.

#### **144. Ikastolarako dirua lortzen (ZIZ-023/013)**

Ikastolako dirua lortzeko, urtero Odeon-en jaialdi bat antolatzen zuten. Agustin Gorostizak futbol partidak antolatzen zituen. Pilota partidak ere antolatzen ziren eta sarrerak saltzeko, frontoia itxi behar izaten zen.

#### **145. Elgoibarko ikastola herrian sakabanatuta I (ZIZ-023/014)**

Elgoibarko ikastolan gero eta ikasle gehiago matrikulatzen zirenez, Felix "Parapan" en ideia baten bidez, bonuak saltzen hasi ziren eta horrela ikastolarako lokalak erosten hasi ziren. Bonuak zer ziren. Gure Kai S.A.

#### **146. Elgoibarko ikastola herrian sakabanatuta II (ZIZ-023/015)**

Danobat eta Goiti lantegien laguntza handia izan zuen Elgoibarko ikastolak. Estatuak "Plan de Urgencias Vascongadas" planaren barruan eskola txiki biribilak eraiki zituen, haurrak hara bideratzeko. Elgoibarren, ordea, ia denak ikastolara joaten zirenez, Udalarekin adostu zen eskola biribil horiek ikastolak ere erabiliko zituela.

#### **147. Elgoibarko ikastola herrian sakabanatuta III (ZIZ-023/016)**

Hurtzaindegi laborala Elgoibarren sortzeko, 3 milioi pezetako laguntza lortu zuten. Diru horrekin, gainera, Urasandi inguruan beste lokal bat erosi zuten ikastolarako. Maalako mojen eskola itxi zutenean, bertan ere hurtzaindegia sortu zuten eta 3-4 irakasle hartu zituzten.

#### **148. Tituludun irakasle euskaldunak aurkitzeko zailtasunak (ZIZ-023/018)**

Tituludun irakasle euskaldunak aurkitzea izan zen eragozpen handienetariko bat. Hasierako irakasleetako batzuk: Itziar Ajuria, Jone Etxabe, Mari Juli Konde,

Nekane Zubiaurre.... Irakasle tituludunak, Antton Aramburu, Andrés Alberdi, Alfonso Gilló... Alfonso Guillóri buruz.

#### **149. Ikastolako irakasleak tituluak lortzen (ZIZ-023/020)**

Hasieran, andereño eta maisuek derrigorrezko ikastaro pedagogikoa egin behar zuten. Bartzelonara joaten ziren urtero. Irakasle asko titulurik ez zutenez, Ikastolen Federazioa eta Eusko Jaurlaritza adostasun batera heldu ziren eta ikastaro horiek Eskoriatzan ematen hasi ziren, Bartzelonan beharrean. Horrela, askok tituluak lortu zuten. Erromatik ekarritako irakasleak.

#### **150. Ikastolarako estatuaren diru laguntza nola lortu zuten (ZIZ-023/021)**

Estatuak eskola pribatuei diru laguntzak bideratzeko plan bat atera zuen. Dirua lortzeko baldintzetako bat 8. mailara arteko ikasketak eskaintzea zen. Ez zutenez, talde bat bildu, Madrilera joan eta eskaera bertan aldatu zuten. 8. maila eskaintzen zutela adierazi zuten eskaeran, ikasle batzuk lortu zituzten martxan jartzeko gela hori, eta diru laguntza jasotzen hasi ziren.

#### **151. Elgoibarko ikastolako eraikin berrirako lurzoru bila (ZIZ-023/023)**

Ikastolaren legalizazio ofizialerako, gela eta lokal ezberdinetan sakabanatuta zeuden ikasleak batuko zituen eraikin berri bat behar zuten. Danobat-ek garai hartan, lurzoru bat zuen eta ikastolari eskaini zion. Luis Ulazia arkitektoak lurzoru gehiago lortzeko ideia bota zuen eta plan partzial baten bidez aurkeztu zen proiektua.

#### **152. Elgoibarko ikastolarako lurzoruen bila (ZIZ-023/024)**

Ikastolarako lurzoruak erostera nola joan ziren. Erraztasun asko izan zituzten, Elgoibarren ikastola oso estimatua zelako. Marañon baserria.

#### **153. Ikastolako eraikinarentzat dirua lortzen (ZIZ-023/025)**

Elgoibarko ikastolaren eraikin berria eraikitzeko plan partziala aurrera atera zen, baina dirua behar zuten lurzoru guzti horiek erosteko. Herritarrei dirua eskatu zieten, etxez etxe. Etxe bakoitzaren diru-sarreraren arabera, kopuru bat edo beste eskatzen zuten. Zortzi milioi pezeta bildu zituzten herritarren artean. Enpresetan beste hainbeste bildu zen.

#### **154. Ikastola eraikitzeko baimena nola lortu zuten (ZIZ-023/026)**

Proiektua eta dirua izanda, ikastola eraikitzeko baimena falta zitzaien. Zarautzeko ikastola egoera berean zegoenean, bertako zuzendaria, Joxe Juan, eta bi herrietako alkateak, Donostiara joan ziren gobernadorearengana.

#### **155. Frontoia Elgoibarko ikastolarentzat (ZIZ-023/027)**

Elgoibarko ikastolaren eraikin berriari jolasleku gutxi diseinatu zitzaiola konturatu ziren. 800 ikasleentzat lekua behar zuen. Arkitektoak jatorrizko proiektua moldatu eta ikastolari frontoi bat atxikitu zitzaion.

#### **156. Aubixako udalekua (ZIZ-023/031)**

Zarauzko ikastolak Aiako baserri batean udaleku bat sortu zuen eta hori entzunda, Juan Joxek Elgoibarko ikastolarako gauza bera egin behar zela

pentsatu zuen. Behin, mendiak zihoala Aubixako baserria ikusi zuen. Batzordean proiektuak aurrera egin zuen eta Aubixako konponketak auzolanez egin ziren. Begiraleak herriko gazteak eta irakasleak izaten ziren.

### **157. Haritz dantza-taldearen sorrera I (ZIZ-023/035)**

Elgoibarko Haritz dantza-taldearen sorreraren nondik norakoak.

### **158. Haritz dantza-taldearen sorrera II (ZIZ-023/037)**

Elgoibarko Haritz dantza-taldearen sorreraren nondik norakoak.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-09*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com